



## Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria  
2020ko uztaila · 366 alea

TOKIKOM



**AUPA  
MAURIZIA!**



# PIL-PILEAN 366

2020ko uztaila

Azaleko argazkiaren egilea:  
Fernan Oregi.

## Aurkibidea

- 4 **Elkarrizketa** Alberto Ramirez Sanchez
- 6 **Begira** Beleak aingirari koxk
- 8 **Zer berri** Aktualitateko albisteak
- 14 **Argazki bidez** Udalekuak 2020
- 18 **Erreportajea** Kulturaldia
- 24 **Kirola** Gorka Tornos, parapente pilotua
- 25 **Kultura** Andramari jaietan ospakizunik ez
- 27 **Nondik nora** Maialen Elizburu
- 28 **Sakonean** Futbol zelaiko zaindaria
- 30 **Zerbitzuak** Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak...
- IRITZIA
- 3 **Neuretik** Alberto Iñurrieta  
*Maskarilak babesten gaitu?*
- 16 **Gutunak** P.G. /A.A. *Bertako basoa sustako duen elkartea sortzeko deialdia*  
ASIER ETA IÑAKIREN OMENEZKO PILOTA TXAPELKETAREN ANTOLATZAILEAK. *Pilota txapelketa bertan behera*
- 16 **Hausnarketa** Grabazio berria
- 17 **Zir(r)ika** P.G. *Zezenak*
- 17 **Puntua** Roman Olaizola *Teruel existe eta zela gainera*



**Pil-pilean herri komunikabidea**

**TOKIKOM**

### Argitaratzailea

Pil-pilean Euskaltzaleen Topagunea  
Errabal kalea 15-1, PK 27  
20590 Soraluze

### Erredakzioa

Ubane Madera  
ubane@pilpilean.eus  
Egoitz Unamuno  
egoitz@pilpilean.eus  
605 706 086

### Publizitatea

publizitatea@pilpilean.eus

### Zuzentzailea

Miren Gallastegi

### Diseinua

Goiena  
Oier Larreategi (moldaketak)

### Maketazioa

Oier Larreategi

### Inprimategia:

Gertu Koop.

### Banaketa:

Pil-pilean Ekoizpena

### Lege Gordailua:

SS-537-2000

**Tirada:** 2.100 ale

### Babesleak

**GOKI**  
erreformak

 **SORALUCE**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZEO  
UDALA**

# Maskarilak babesten gaitu?



ALBERTO IÑURRIETA

**O**rain urtebete esango baligute herritar guztiak mozorrotuta atera beharko ginela kalera eta jaiak ere suspenditu egingo zirela seguritatez ez dagoelako elkarren ondoan egoteko ez baldin bada maskarila ipinita daukagula, pentsatuko genuke fikziozko pelikularen bat kontatzen zigutela. Baina horrela gertatu da eta egoera honek aparteko gazi-geza sortarazten du gure artean.

Hartzen diren neurriak egokiak diren edo ez epaitzera ez naiz sartuko, hori gatazkarako bidea baita beti ere. Dena dela, jakin dakigu, hainbat eta hainbat informazio bitartez PCR azterketek, egiten ari diren frogak kutsatuta gauden edo ez jakiteko, ez dutela atzematen COVID-19 birusaz kutsatuta gauden edo ez. Froga horretan positibo emateak ez du esan nahi pertsona hori kutsatuta dagoenik, ezta negatibo emateak gaixotasunetik kanpo dagoenik ere. Itxura denez, delako PCR honek detektatzen duena zera da, ea gure gorputzak sortu duen sustantzia bat birus horri aurre egiteko izango litzatekeena baina beste eraso askoren aurrean ere sortu zezakeena. Egia esan, informazio oso gutxi ematen digu, baina beldurrez betetzen gaitu. Esaten dute asko aurreratu dela birusari buruzko ezagutza, mailan baina mesfidantza da nagusi alor askotan.

Zein da jokabide egokia? Badaezpada ere prebentzioa praktikatzera, horretan guztiok ados egongo ginatela uste dut. Eta prebentzio hori praktikan jartzeko hartu diren neurriak eskuak sarri garbitzea eta maskarila erabiltzea edonon gaudela.

Badira iritzi ezberdinak adituen artean ere maskarilaren erabileraren inguruan. Alde batetik gure elementu patogenoak partekatzea gutxitzen badu ere bestaldetik arnasa botatzen dugunean botatakoa berriz barrura eramango dugu geure osasunaren kaltean. Ez dago batere garbi maskarila erabiltzearen egokitasuna, baina hala jarrita dagoenez derrigortzea erabaki da eta guztiok onartu beharreko neurria bihurtu da, eta horren inguruan ez dago erreferendumik.

Zalantza asko sortarazten ditu gai honek eta lagungarria litzateke kalitatezko informazio gehiago izatea, batez ere elkar zaintzen egiten dugun ahaleginak zentzua har dezan.

**LAGUNGARRIA  
LITZATEKE  
KALITATEZKO  
INFORMAZIO GEHIAGO  
IZATEA**

# “Margolan bakoitza arnasaldi bat da”

ALBERTO RAMIREZ SANCHEZ (PARADAS-SEVILLA, 1960) ARTISTA PLASTIKOA

---

**TESTUA:** EGOITZ UNAMUNO.

ARGAZKIA: FERNAN OREGI.

---

Hortz-laborategian egin dugu hitzordua Albertorekin; bere ofizioa (hortzetako protesiak) eta pasioa (arte plastikoak) uztartzen dituen lekuan. Sotora jaitsi gara eta andaluz bati dagokion bezala, azeitunak eta moskatela atera dizkigu mahaira, ehunka margolanez eta zenbait eskulturaz inguratua dagoen gelan. Arteaz berba egin digu eta bizitzaz, pasioz eta sakon, eta guk konbertsazio horretatik ateratako koloretako trazutxo batzuk ekarri ditugu hona.

**Zure margolanak kalera atera dituzu. Zergatik orain?** Konfinamenduaren fruitua da. Geure barnera bilduta pasatu dugun denbora horretakoa. Niretzat denbora urrea da eta konfinamenduaren hiru hilabeteak margotzen pasatu ditut. Egun guztietan pintatu dut, hutsik egin gabe... Hamarnaka koadro egin ditut eta horregatik erabaki dut erakusketa hau antolatzea. Bizi dugun momentuarengatik. Zalantza, katastrofismoa eta krisi garaia delako... Nire borrokarako arma artea da. Bakoitzak bere armak erabiltzen ditu eta nik beti borroka egin dut artearen bitartez, txiki-txikitatik.

**Galdetuko banizu zergatik pintatzen duzun?** Nik ia egunero pintatzen dut. Arnas hartzeko modu bat da. Margolan bakoitza arnasaldi bat da.

**Beti pintatu duzu horrenbeste ala orain gehiago?** Orain gehiago, nire espazio bitala dudanetik. Galdetuko bazenit zenbat margolan ditudan, ez nizuke jakingo erantzuten. Nire ibilbidean zehar, historiako pintore nagusien bizitzak eta obrak ulertu eta berrinterpretatzeko ahaleginean jardun dut: Tapies, Picasso, Estevan Vicente, Palazuelo... Baita fetitxeak eta inkonprendituak ere: Rothko...

**Hiru hilabeteotan zer pintatu duzu?** Inspirazioa bilatu behar izan dut eta oraingoan Picassorengan bilatu dut. Dena den, niretzat XX. mendeko abangoardia guztiak dira inspirazio iturri: inpresionistak, Picasso kubismoaren bidegile moduan, Kandinskyren espresionismoarena, Malebichen eskola errusiarra...

**Zu erakartzen zaitu horrek...** Ni erakartzen nau iraultzak. Iraultzailea naiz, sosegatuagoa eta lasaia goa emozionalki duela hogeita hamar urte nire enpresa sortu nuenetik, baina iraultzailea. Ni 70-80. hamarkadetako *superviviente* bat naiz...

**Zergatik Picasso?** Picasso jenio bat zen eta jakin zuen pausu bat aurrera ematen. Denak balio zion. Zaborrik zaborrenak ere bai. Nik zaborrerekin lan egiten dut. Asko margotzen dut kartoian, inprenta eta enmarkatzaileek botatzen dituzten materialetan. Eskulturak ere txartategietako edo zerrategietako ondarrekin egiten ditut. Nire leloa da: denak balio du eta zerbaitek ez badu balio, erabili artea egiteko.

**Zure ustez arteak zein ekarpen egiten dio gizarteari?** Egiteko modu berriak, bisio berriak... Behin Portaleako erakusketa batera emakume bat etorri zen eta sarrerako atean gelditu zen, erdibidean, ez kanpoan eta ez barruan, eta esan nion: “Emakumea, sartu zaitez! Sarrera debalde da eta... Sartu eta gozatu ezazu!”. “Niri ez zait artea gustatzen!”, esan zidan berak eta esan nion: “Baina andrea, ez ezazu horrelakorik esan hemen, oraindik deskubritzeko zauden zerbaiten atarian egon zaitezke eta. Emaiozu aukera bat zeure buruari!”. Artea hain da zabala... Artea gustatzen ez zaizula esatea... Ez dakit... Lo egitea gustatzen ez zaizula esatearen parekoa da. Ireki ezazu burua.

**Ikusten dut oraindik sinesten duzula arteak mundua alda lezakeela, ondare industrialaren gaineko argazki-erakusketa bat antolatu duzu helburu horrekin.** Bai, bai. Nik utopia bizi dut, utopia egingarria. Aspaldian burutik kendu ezin dudana gaia da SAPArena. Arte galeria ere helburu horrekintxe zabaldu nuen, arduradun politikoak eta herritarrak pabiloi horien balioaz ohartarazteko. Eraikin horiei beste erabilera bat eman beharko litzaieke, esentzia mantenduz. Horixe da gaur egun herrialde aurreratu guztiak egiten dutena, baita gure inguruko herriek ere. Eraikin horiek Plazentziaren mendetako historiaren azkenengo arrastoa dira.



# Beleak aingirari koxk

**ARGAZKIA:** CARLOS DE COS

**TESTUA:** EGOITZ UNAMUNO

Ekainean, Osintxu eta Soraluze artean ateratako argazkia da hau. Belea ageri da bertan, atzapar artean duen aingira jan nahian. Ibai inguruan ohikoa behar lukeen irudia da harrapakari eta harrapakinena, ibaiko biodibertsitatea osasuntsu dagoenaren seinale.

Azken hilabeteotan ibaira begiratu izan duenak ikusiko zuen aingirak ugaritu egin direla, baina ostera, ez dela ikusten duela hilabete batzuk ikusten zen beste lertxun eta ubarroi.

EAEko Uraren Euskal Agentziak argitaratu berri duen txostenak dio, 2019an “Deba ibaiak egoera ekologiko eta potentzial ona” zuela.

Gurutzatu ditzagun atzamarrak 2020an ere hala jarraitu dezan.







Anbulatorioaren sarrera gaur egun.

# Lanez gainezka

Anbulatorioko medikuek "pazientzia" eskatu diete erabiltzaileei, opor garaian langile gutxiago dira, ez baitute ordezkorik ipini oporretan dauden langileendako; aldi berean, arreta eskaera izugarri handitu da

Abuztuan, Soroluzeko anbulatorioa zabalik egongo da, ohiko ordutegiarekin. Larrialdiren bat izanez gero, Mendaroko Ospitalera jo beharko dute herritarrek, gainontzeko herrietakoek bezala. Etengabeko Arreta Gunea -Soroluzeko anbulatorioa itxita dagoenerako-, berriz, Elgoibarko anbulatorioa izan beharrean, Torrekuakoa (Eibar) izango da, "pandemia guztian izan den moduan", Debabarreneko ESItik gogora ekarri dutenez.

Aldaketei dagokienez, berriz, eskualdeko erakunde sanitarioko ordezkariak zehaztu dute abuztuaren 10etik 28ra, pediatria zerbitzua, Soroluzen

barik Elgoibarko osasun-zentroan eskainiko dutela. Gainerakoan, bestelako zerbitzu guztiak -emagina, erizaintza, etxeko...- "betiko moduan" emango dituzte, herrian bertan.

Debabarreneko ESItik adierazi dute Soroluzeko anbulatorioan "udako ohiko ordutegia" ezarri dela, "COVID egoerari moldatuta".

### "Pazientzia"

Soroluzeko anbulatorioan gaiari buruz galdetuta, berriz, bertako hiru medikuek esplikatu dute "zerbitzua bete" egingo dutela. Baina aldi berean, "pazientzia" eskatu diete erabiltzaileei, langile gutxiago baitira. Izan ere, ez dago

oporretan dauden lankideen ordezkorik: "Murrizketak ez, baina gabeziak badaude. Ordezkorik ezean, gure artean ari gara falta direnen hutsuneak betetzen. Ez dakigu zein den ordezkorik ez egoteko arrazoia. Egoera horren ondorioz, lankide batek oporrak hartzean, gainerakoak haren lekua betetzen ari gara; bi lagunuen artean hiruren lana betetzen ari gara. Horrek lan-karga ekarri digu, eta aldi berean, lan-karga horrek gabeziak sortu ditu zerbitzuan, atzerapenak eta abar. Esan beharra dago, baita ere, erabiltzaile askok ez duela gure egoera ulertzen. Jendea ohituta dago berehalako arreta eskatzen eta jasotzen. Guri, hilabete honetan, adibidez, gazte batek gezurra esan zigun. Eztarriko mina zuen eta mediku batek aurrez aurre ikustea nahi zuenez, kalentura ere bazuela esan zigun. Aurrez aurreko arreta eman genion eta berarentzat PCR proba eskatu genuen. Hara gure ezustekoa, proba egitera ez zela joan jakin genuenean! Orduantxe aitortu zigun gezurra esan zigula", kontatu dute medikuek.

Izan ere, azken hiru asteotan bat-batean handitu egin da COVID-19 birusean positibo eman duen herritarren kopurua eta haren ondotik etorri den arreta eskaera.

Azken datuen arabera, -martitzena- herrian 16 lagunek eman du positibo PCR probetan.

**"ERABILTZAILE ASKOK EZ DUTE GURE EGOERA ULERTZEN, OHITUTA DAUDE BEREHALAKO ARRETA JASOTZEN"**



# Hutsunea bete nahian dator Amari

"Osasungintzan eta jarduera fisikoen arloan ez daukan espazioa irabazi" nahi dute emakumeen gorputzarendako

Yoga, hipopresiboak, arnasketa, meditazioa, pilatesa, haurdunaldiko eta erditze-osteko gimnasia... Halako eta antzeko diziplinak lantzeko helburuarekin Amari izeneko proiektua bultzatzen ari dira herrian. "Hutsunea ikusten dugu osasunaren ikuspegiari dagokionez. Bakoitzak bere kezka eta ezagutzak elkarbanatuko dituen espazioa behar dugula sentitu dugu". Horrelaxe azaldu du proiektuaren jatorria Olatz Sebaiek, Amari ekimenaren bultzatzaileetako batek.

Esandako diziplinetan interesa izan dezaketean edozein herritarri daude zabalik Amari elkarte sortu berriaren atea. "Emakumeen gorputzari gaur egun ez osasungintzan, ez jarduera fisikoen munduan ez daukan espazioa irabazi nahi diogu. Emakumeen bizipenak, gorputza eta arazoak ezagutzen ditugu eta haiei merezitako espazio eta ardura eskaini nahi diegu bereziki. Baina bere burua edozein sexu edo generorekin identifikatzen duten pertsonak etorri ahalko dira bertara. Bizkarreko posturak, zentroa edo korea, arnasketak... ere badira gure ardatz; denon artean osatzen joan ahal gara.", dio Sebaiek.

## Urtean 30 euro

Amari elkartearen izena emateko epea zabalik dago ([forms.gle/](http://forms.gle/)



Amariaren logoa.

FpUtTV61U8EQhrGA). Irailaren erdialdean abiarazteko asmoa dute, froga modura. "Egoerak lagatzen badigu. Astelehenetan eta asteazkenetan 19:15etik hasita, ordu bete/ordu eta erdiko saioak, eta zapatuetan, 10:00etan hasita". Hasiera batean, kiroldegian jardungo dute, baina ez dute baztertzen "saioak mendian edo beste lekuren baten egin nahi dutenentzat aukera hori antolatzea. Era berean, elkartearen harago joan eta sare sozialen bidez ere egin ditzakegu hartu-emanak".

Elkartearen irabazi asmo bakoa da: "Irabaziak emozionalak, osasunarekin eta ezagutzarekin loturikoak izango dira", zehaztu dute. Hori bai, urteko 30 euroko kuota ordaindu beharko da "materialaren mantenturako", esplikatu dutenez.

## Umeendako tailerrak

Izena emateko epea itxita egon arren, oraindik badago lekua Udalak antolatutako umeendako tailerretan: Zirkoa, Robotika, Xakea, Bertsolaritza eta Mekanografia; beraz, posible da izena ematea. Gogoan izan hainbat tailerrek leku mugatuak dituztela eta izen-emate ordena kontuan haratuko dutela. Urriaren hasi eta maiatzaren bukatuko dira tailerrak.



Umeak Robotika tailerretan.

## Udako Kultura Bonuak salgai

Diputazioaren eskutik Udako Kultura Bonuak merkaturatu dituzte literaturarekin, musikarekin eta zinemarekin lotutako produktuen kontsumoak bultzatzeko. Estankotan eta Iratxon eskura daitezke. 20 euro ordainduta, 32 euroko kontsumoa egin daiteke euskarazko produktuetan eta 28 eurokoa bestelako hizkuntzetakoetan.



Institutuko obrak.



Eskolako obrak.



Etxea botatzen, Errekalden.

# Abian dira hiru obra handi

Azken asteotan hiru obra handi abiarazi dituzte herrian: BHI Institutua zaharbertitzekoa, Plaentxi Herri Eskolako eskailera irisgarriago bilakatzekoa eta Errekalde 10eko etxea eraistekoa

Uztailaren erdialdean obrak hasi zituzten herriko bi ikastetxeetan. Plaentxi Herri Eskolan, bertako patiora doan eskailera -eskolako sarbide nagusia ikasle askorentzat- bota eta berria ipintzen ari dira. BHI Institutuan, berriz, eraikin osoa eta ingurua zaharbertitzeko obra handia abiarazi dute.

### Institutua

Institutuko lanei dagokienez, honako jarduerak egingo dituzte: teilatua eta fatxada konpondu, igogailua ipini, goiko frontoia estali, eraikineko ate eta leiho guztiak aldatu, lehenengo solairuko komunak berritu, argindar instalazioa aldatu, hainbat espazio berrantolatu,

eraikinaren hezetasun arazoak konpondu eta ikastetxearen barrualdea margotu.

887.963 euroko inbertsioa egingo du Eusko Jaurlaritzak obra horretan, erakunde hori da-eta Institutuaren eraikinaren jabea. Aurreikuspena da lau hilabeteetan bukatzea.

Horren ondorioz, besteak beste, 2020-2021. ikasturtearen lehen hilabeteetan obretan segituko dute. Ikastetxeko zuzendaritzatik esplikatu dutenez, ikasturtea irailaren 7an hasteko asmoa dute, ikasleak bertan direla. Edozelan ere, obrek eta COVID-19 pandemiak eraginda, zelan edo halan berrantolatu egin beharko dituzte ikasgelak. Adibidez, asmoa da hainbat modulu

ekartzea, ikasleetako batzuek eskolak bertan izan ditzaten.

### Eskola eta etxea

Plaentxi Herri Eskolako eskailerari dagokionez, berriz, aurreratuta doaz lanak. Pikatze-lanak ia bukatu dituzte; laster, eskaileren eskumako aldean, pareta berria eraikitzen hasiko dira; erdian, berriz, baranda ipiniko dute eta ur eta argindar azpiegiturak bideratuko dituzte. Ikasturte hasierarako obrak bukatuta izatea da aurreikuspena. Lanen kostua 58.304 eurokoa da; 41.000 euro Eusko Jaurlaritzak emango ditu.

Azkenik, aste honetan hasi dituzte Errekalde 10eko etxea botatzeko lanak, eraikina hondamen egoeran dagoelako. Makina hondeatzailearen bitartez eta eskuz botako dute eraikina, zatika. Aurreikuspena da abuztuaren amaierarako bukatzea obrak.

# Industen jarraituko dute

Atzerapenarekin hasi zituzten Dolmenen Ibilbideko aurtengo indusketak; ondorioz, abuztuan eta irailean lanean segituko dute

Konfinamenduak hilabeteko atzerapena ekarri die Dolmenen Ibilbideko aurtengo indusketei. Horren ondorioz, datozen asteotan indusketak egiten jarraituko dute, "abuztuan eta irailean behar den asteburu guztietan lan egingo dugu, bukatu arte", zehaztu du Jesus Tapiak, indusketen arduradunak.

## Zeramika pusketak

Aranzadi Zientzia Elkarteko arkeologoak emandako xehetasunen arabera, honako lanak egin dituzte orain arte: "Aizpuruko-Zabalan tumulua garbitu egin dugu ia; egitura dagoeneko ikus daitezke. Gehiago garbitzea falta da eta gero kamera barruan hasiko ginatete lanean. Edozelan ere, kamera barrutik zabalduko



Aurtengo indusketak. JESUS TAPIA

hainbat material azaldu dira, ontzi zeramikoak zati batzuk, tumulu horretan lehen aldiz. Kanpoan azaldu dira zatiak, izan ere, tumuluak lehertuta egoten dira, lehenagotik zabaldu. Antzina, bertako jendea altxorren bila ibiltzen zen eta apurtu egiten zituzten tumuluak".

## Pelikularen grabazioarako lokalak eta etxeak erabiltzen eta ikuskatzen ari dira

Ekainaren amaieran, herrian beste filmazio bat egiteko baimena eskatu eta eskuratu zuten Udal Gobernuarengandik: Manu Gomez zinemagile arrasatearrak zuzendutako *Erase una vez... Euskadi*.

Film luzea produzituko duen La Canica Films ekoiztetxetik jakinarazi zuten batzar irekia egingo zutela herritarrei

zuzenean filmazioaren gaineko xehetasunak emateko. Azken orduan, baina, bertan behera laga zuten hitzordua eta harrezkero ez dute grabazioen gaineko beste informaziorik eman. Pil-pileaneak, ordea, jakin du asteak daramatzatela herrian lokalak eta etxeak ikuskatzen. Beraz, badirudi aurrera doala herrian grabazioen bat egiteko asmoa.

## Egoitzarako kudeaketa berri bila

Ekainean, ezusteko handia izan zuten Mesedeetako egoitzan: hiru urteotan bertako zuzendari izan den Elena Beristainek lanpostua laga egin zuen. Ez egoitzako langileek eta ezta egoitzako patronatuak ere (alkatea, alderdi bakoitzeko zinegotzi bana, apaiza eta egoiliarren senideen ordezkaria) ez zuten halakorik espero, Beristainek ez zuelako alde aurretik asmo horren berri eman. Orain, "hausnarketa prozesuan" ari direla kontatu du alkateak: "Aita Menni taldearen bitartez barne auditoria-diagnostikoa prestatzen ari gara, etorkizuneko kudeaketarik egokiena zein izan daitekeen erabakitzeko".

## EH Bilduk boto gehien

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, Sortaluzen EH Bilduk eskuratu zituen boto gehien, botoen %40,25 (657). EAJ izan zen bigarren indarra, botoen %34,35 eskuratuta (559 boto) eta PSE-EE hirugarrena, botoen %13,05 eskuratuta (213). Ahal Dugu-Podemosek, berriz, golpe gogorra hartu zuen, ia botoen erdiak galdu baitzituen. Gauza bera gertatu da PPK eta Ciudadanosek elkarrekin aurkeztutako hautagaitzarekin, erdia baino gehiago galdu dute oraingoa.

Parte-hartzeari dagokionez, jaitziera egongo zela aurreikusten zen eta halaxe izan zen: %56,50 izan zen.

# Bertako basoa sustatzeko elkarteak

Naturazale talde batek batzar irekia deitu du irailerako, "bertako basoa sustatuko duen elkarteak" eratzeko asmoz.

Eukaliptoaren aurkako ekimena bultzatu duten naturazaleek batzar irekia deitu dute irailerako, Soraluze bertako basoa sustatuko duen elkarte bat eratzeko asmoz. "Bazkideen kuota, laguntza, donazio, babesle edo dena delako diru sarrera bitartez Soraluze sailen bat eskuratu" eta bertako zuhaitzak landatzea da hasierako asmoa, "Soraluze bizigarriago bat eraikitzeko". Irailaren 17rako jarri dute hitzordua, Gaztetxean, arratsaldeko 19:00etan.

## Eukaliptoaren aurkako mozioa aho batez onartu zen

Uztaileko udalbatzarrean EAJK, PSE-EEK zein EH Bilduk aho batez onartu zuten Soraluzeko Baso Biziak taldeak aurkeztutako mozioa. Hortaz,



Pagoak, Karakaten. FERNAN OREGI.

Udalak konpromisoa hartu du "eukalipto-landaketak saihesteko bere esku dagoen guztia" egiteko eta hurrenez hurren Jaurlaritzari eta Aldundiari eskatzeko, eukalipto Espezie exotiko inbaditzaileen Euskadiko katalogoan txertatu eta baso-politika alda dezala.

## Basoa Elkartearen hizaldia

Uztailaren 20an, Fernando Otazua eta Juan Carlos Berraondo Basoa Elkarteko zuzendari eta presidentek ordu eta erdi inguruko hitzaldi mamitsua eskaini zuten antzokian. Bertan, basogintzarekin lotutako gai ugari izan zituzten hizpide, besteak beste: Gipuzkoako baso-jabeen elkartearen ekimen nagusiak, banda marroiak basogintzan eragin duen krisi egoera, dirulaguntzak, espezie alternatiboak (tartean, eukaliptoak)... Administrazioari "ezohiko neurriak" eskatu zizkieten "ezohiko egoerari" erantzun ahal izateko.

## Eukaliptoaren ontasunak

Baso-jabeen elkarteko ordezkariak, labur bada ere, berba egin zuten eukaliptoaz. "Dena ez da negatiboa. Hogeita hamar urteko eukaliptoen egurra serrarako erabil daiteke, gero eraikuntzan edo altzarigintzan ere baliatu ahal izateko".

## Auzokoren ikasturte amaiera

Auzoko egitasmoak ekainean amaitu zuen aurtengo ikasturtea eta elkar agurtzeko jatordua antolatu zuten Elkartegian.

Aurten, guztira, 50 herritarrek parte hartu dute euskara hurreratzeko egitasmoan, dela Auzoko taldean parte hartuz edo EPA-HHI zentroan eskaini diren saioretara joanez.



Auzoko egitasmoan parte hartu duten zenbait herritar. SARA CARRASCO.



Sebas Etxaniz bere emazte eta senideekin Soroluzen.



Kartzelatik atera berritan.

# Sebas Etxaniz etxean da

Sebas Etxaniz (Elgoibar, 1944), Arantxa Plazaola soroluzetarraren senarra, Villabonako (Asturias) kartzelatik atera da 3. graduarekin.

Uztailaren 11n atera zen kartzelatik Sebas Etxaniz elgoibartarra espetxeko batzordeak hirugarren gradua ezarri eta gero. Lehenengo egunetan, egunero Martuteneko kartzelara joan

behar izan zuen lotara, baina orain, osasun arazoak direla eta, ez du kartzelara joan beharrik izango eta horren ordez, etxean lo egin beharko du kontrol telematikoaren ezarritan. Gainerakoan, egunez, bizimodu

arrunta egiteko moduan izango da.

Sebas 2002tik egon da kartzelan (aurretik ere bai, zenbait urtez) eta 76 urterekin euskal preso kolektiboko kiderik zaharrena da. Bere garaian, Espainiako Auzitegi Gorenak 30 urteko espetxe zigorra ezarri zion ETaren Bizkaia komandoko kide izatea eta 80. hamarkadaren hasieran zazpi pertsonaren (Goardia Zibilak, polizia eta militarrek) hilketetan parte hartzea egotzita. Guztira, hogeitun urte eman ditu preso Espainiako kartzelatan.

## 'Izan Bidea ibiltarien sarea' ekimena aurkeztu du Sare Herritarrak

Ekainaren amaieran, Soroluzeko Sare Izan Bidea dinamika aurkeztu zuen herrian. Iraultz Arluziaga Sareko ekintzaileak azaldu duenez, "asmoa da bakearen aldeko ibiltarien sare erraldoi bat sortzea eta guztien artean 3.127.326 kilometro egitea (Euskal Herriko biztanleen kopurua), preso eta iheslarien

auziari behin betiko konponbidea emateko.

### Mugikorrerako aplikazioa

Ekimenean parte hartzeko telefono mugikorrerako garatu duten *Izan Bidea* aplikazioa jeitsi behar da. Hortik aurrera, aplikazioak erabiltzaileak egin dituen kilometroak kontabilizatuko ditu.



Soroluzeko 'ibiltariak'. FERNAN OREGI.

# Udalekuak

**GARAZI CATALAN ETA MIREN GALLASTEGI** KUKUMIXO AISIALDI TALDEA

Zailtasunak zailtasun, itxaropen txikiz eta irribarre handiz ekin genien udalekuei. Bidea harriz beteta egon arren, Kukumixoko haur eta hezitzaileok, beste behin, Soroluzeko txoko guztiak alaitasunez, euskaraz eta kolorez sorgindu ditugu.

Udaleku ezberdinak izan arren, haur, guraso eta hezitzaileok gure alea jarri dugu elkar zainduz eta maitasun eta kontu handiz, konfinamenduak utzitako hutsune eta beharrak indarrez eta gozoz betetzeko.

Soroluze hobeto ezagutzeko eta herriak eskaintzen dizkigun aukerei zukua ateratzeko aukera paregabea izan dugu. Erdigunean, auzoetan, mendian, putzuetan... barre, dantza eta jolasean ederki pasatu dugu elkarrekin. Gora Kukumixo!





## GUTUNAK

### **Bertako basoa sustatuko duen elkarte sortzeko deialdia**

**P.G. - A. A.**

NATURZALEAK

Soraluzeko lagun batzuek, herriko ingurumenaren egoeraz kezkatu eta berau hobetzeko asmoz, elkarrekin bat sortzeko pentsatu dugu. Hitz gutxitan esanda, elkarrekin honen helburua litzateke, bazkideen kuota, laguntza, donazio, babesle, edo dena delako diru sarrera bitartez Soraluzen sailen bat eskuratu eta bertako basoa sustatzea; landare eta animaliei babeslekua eskaini eta errekek osasuntsu mantenduz, gure bizi kalitatea hobetu eta Soraluze bizigarriago bat eraikitzeko.

Simplea ezta? Baina hau aurrera eroateko eta gure

lehengo zuhaitza landatu ahal izateko lan apurtxo bat egin beharko dugu.

Gure ametsarekin bat egin eta elkartearen sorreran lagundu nahi baduzu, gonbidatuta zaude datorren irailaren 17an, osteguna, arratsaldeko 7 etan, Gaztetxean egingo dugun batzar irekira.

Gaur landatzen dugunak gerizpe goxoa emango digu bihar!

### **Pilota txapelketa bertan behera**

**ASIER ETA IÑAKIREN OMENEZKO PILOTA TXAPELKETAREN ANTOLATZAILEAK**

Txapelketako parte hartzaile batek COVID-19an positibo eman duela jakin dugunean, erabaki dugu txapelketa bertan

behera lagatzea. Aurrerago ikusiko dugu txapelketarekin aurrera egin ala ez.

### **Presoen aldeko otarraren zozketa**

**PRESOEN ALDEKO ELKARTASUN TALDEA**

Zenbaki saritua: 09327.

Irabazlea: Antxon Del Olmo.

**GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

## HAUSNARKETA

### **Filma grabatuko dute Soraluzen**

laz 'Patria' telesaila Soraluzen grabatu zuten; orain beste filmazio bat egiteko baimena eskatu dute. Herritarrei zer iruditzen zaien galdetu diegu.



**IRATXE TXURRUKA ANSOLA**

"Pelikula egitea ez zait txarto pentsatzen, gainera jendeari lana ematen diote. Baina, aldi berean, COVID-19ak eragindako egoera dela eta, ba ez dakit oso momentu aproposa den. Egoerarekin arduratuta nago, gainera, Soraluzen nahikoa kasu daude".



**FERNANDO TORRIENTES BERNA**

"Niri oso ondo iruditzen zait, egia esan. Zoragarria da. Pelikula hemen grabatzea herria promozionatzea da. Gainera, ekonomikoki ere baditu abantailak, diru zerbait lagako du-eta herrian. Grabazioek ez didate ardurarik eragiten COVID-19a dela eta".



## ZIR(R)IKA

ZEZENAK P.G.



## PUNTUA



ROMAN OLAIZOLA

## 'Teruel existe' eta zela gainera

**G**araiotan, mundu guztiari bururatzen zaio mendira, hondartzara, hirira... ihes egitea, baina pandemiak nahastu egin ditu plan horiek guztiak, besteak beste, orain, pilaketak saihestu behar direlako.

Bada eskualde bat bere baitan Teruel eta Tarragona probintzietako lurraldeak hartzen dituena, hegoaldeetik Castelloneraino eta iparraldetik Zaragozaraino hedatzen dena eta bizi ditugun garaiotan oso gomendagarria dena.

Eskualde horretan katalanaren mendebaldeko aldaera bat berba egiten dute, eta bitxia bada ere, eremu horretan hauteskundeak alderdi popularrak irabazten ditu. Ederrak dira bertako herriak eta jendea, produktuak eta, batez ere, paisaia. Txango zoragarriak egiteko moduko mendi multzoak ditu, fauna gainezka, bide berdeen sare bikaina, eta, onen onena, ibaiak, turkesa koloreko ur ez bereziki hotzarekin; eta, espazioa, espazio asko, mundutik ihes egin ahal izateko. Nik bidaiatu dut pixka bat bizitzan, eta edukazio txarrekoa izateko asmorik gabe, esan nezake ez duela Frantziako Probentza edo Italiako Toscanaren inbidiarik.

Horta de San Joan (Tarragona) eta Valderrobles eta Beceite (Teruel) dira erreferentziazko herriak.

AITOR AMOR  
BERRAONDO

"Ez ondo eta ez gaizki. Ez dut daturik ados edo kontra egoteko. Badakigu trabak izango direla, baina egin nahi bada, onartu egin behar dira. Urte osoan izaten dira traba handiak bestelako gauzengatik. Herrira begira, berriz, dirulaguntza eta bentaja bada, ados nago".

LAURA FERNANDEZ  
BASKARAN

"COVID-19arekin beldurrez nabil eta pelikula bat orain grabatzea akaso ez da egokiena. Bestalde, grabazioek zaildu egiten dute, adibidez, autoen aparkaleku kontuak; beste pelikularekin nahikoa zoratuta ibili ginen zentzu horretan".



# Jaien faltan, Kulturaldiak ekarri du arnasa

Ekainean eta uztailean, Kulturaldiaren barruan programatuta zeuden emanaldi guztiak burutu dira, gehien gehienak ikusle kopuru politarekin gainera. Jaien faltan, kultur ekitaldiek eman dute aukera elkarrengana batu eta elkarrekin gozatzeko. Ondorengo orrialdeetan jaso ditugu ekimen nagusietako batzuk.

Testua: **Egoitz Unamuno**. Argazkiak: **Fernan Oregi eta Ubane Madera**.



◀ **Baltsamoa, hilabeteotako ilunaldia sendatzeko**

Lehen kontzertua zen Ruperentzat ere, hala kontatu zuen, hilabete batzuetan taula gainera igotzeko aukerarik gabe egon zela, eta bakarrik etorri zen. Banda imajinatzeko eskatu zigun, baina ez genuen beharrik izan. Bere gitarrak eta ahotsak behar genuen guztia eman ziguten. Baltsamoa, hilabeteotako ilunaldia sendatzeko.

▼ **Kubatarren berotasuna**

Hirurogeita hamarren bat herritar batu ziren Havana 537 taldeak frontoian eskaini zuen kontzertura. Eguraldia lagun, giro polita sortu zen musikari eta musikazaleen artean. Frontoian egin zen lehen emanaldia izan zen eta hasieran, aurrean ikusle gutxi baldin bazuten ere, ikusleak iritsi ziren eta giroa berotua ere bai, "Viva Cuba!" ohiu eta dantza saiotxo eta guzti.





#### ◀ Pasioz betetako emanaldia

Pasioa. Horixe izan zen Juan Navas boskoteko kideek antzokian batu zen publikoari transmititu ziotena; musikarako, kantarako eta dantzarako pasioa.

"Flamenco ez da inorena, ez ijitoena eta ez paioena, kantatzen duenarena da eta gainerako kontuak ipuinak dira" esanaz amaitu zuen emanaldia bilbotar flamenko-kantariak.





### ▲ Amak, bizipozez gainezka

Amak taldeak ordubete pasatxoko emanaldi freskoa eskaini zuen Frontoian, aurrean ehun ikusle inguru zituztela.

Ez zen izan ohiko (halakorik balego) trikiti emanaldia. Jolas egin zuten soinuarekin, ahotsekin eta panderoarekin, euren artean eta publikoarekin ere bai. Musika ona eta bizipoza transmititu zuten dosi handietan.



### ► Saio zirrargarria

Umoretik, sakontasunetik eta erotismotik izan zuen joan zen zapatuan Frontoian egin zen saio gogoangarriak. Horretarako oinarri ona ipini zuten Amaia Agirrerren gaiek eta bertsolariek bertsoaldi ederrak osatu zituzten plaza bete zuten ikusleen gozamenerako. Saioa Bertsoa. eus-en ikusi ahalko da abuztuko lehen astetik aurrera.





▼ **Arte plastikoak ere izan du bere lekua**

Alberto Ramirezek konfinamendu garaian sortu dituen dozenaka margolan eta eskultura erakutsi zituen asteburuan Zubi Nagusian, 'Picassori omenaldia' izeneko erakusketa berezian. Normalean, arte garaikidea hiri handietako galeria edo museoetan erakusten da, baina guk herrian bertan dugu ikusteko aukera. Ez da ohikoa eta bai eskertzekoa aukera hori ematea.







► **Txistuaren eta dultzainaren momentua**

Aurten, jaietako programazioaren faltan, txistulariak eta dultzaineroak izan dira herrian nolabaiteko jai giroa pizteko funtzioa izan dutenak. Beti izaten dute funtzio hori, baina aurten garrantzi berezia hartu dute. Izan ere, COVID-19arengandik babestea garrantzitsua da, baina horrekin batera ezinbestekoa da alaitasuna eta aldarte ona ekarriko diguten ekimenei eustea. Beraz, eskerrik asko!





Oinez eta Hegan txapelketa, Aretxabaletako Krutzebarrin. GOIENA.



Gorka Tornos, garaipena ospatzen. GOIENA.

# “Ahal dudan guztietan aireratzen naiz”

## GORKA TORNOS PARAPENTE PILOTUA

Uztailaren 18an, Gorka Tornosek lehen postua lortu zuen Oinez eta Hegan Euskal Herriko III. parapente txapelketan.

### Zelakoa izan zen txapelketa?

Euskal Herrikoa egiten den hirugarren aldia da. Oinez eta Hegan txapelketaren modalitatea berezia da, hegan egitearekin batera korrika ere egin behar delako eta aireratzeko lekura oinez joan. Eguraldi ona egin zuen, erraz aireratu nintzen...

### Orain dela aste batzuk Espainiako txapelketan ere bigarren.

Bai. Aste guztian lehenengo joan nintzen eta azken egunean

akats batengatik bigarren postura pasatu nintzen, baina ondo. Estatu mailako piloto oso onak joaten dira eta baita Frantziatik eta Portugaletik ere.

### Garaipena lortzeak ze garrantzi dauka zuretzat?

Animatu egiten nau parte hartzen jarraitzera. Azkenean hegan egitea da, gozatzea eta ondo pasatzea. Ez daukat beste helbururik. Helburua helmugara heltzea da.

### Gustatzen zaizu konpetitzea?

Ziurtatzen dizu leku eta baldintza onak izango direla parapentean ibiltzeko eta parapentistak ezagutzeko aukera ematen dit.

### Zenbat urte dira parapentean hasi zinela?

Zazpi edo zortzi urte. Xabier Arribillagarekin hasi nintzen Orduñan. Parapentean hasi nintzenez geroztik beti zerura begira nago.

### Han goian bakea dago.

Bai, bakea eta animalia asko. Saiekin asko egiten dugu hegan. Haiek ere gure moduan dabilta, aire korronte beroekin altura hartu nahian, hegalak mugitu beharrik gabe. Gu ere horretaz baliatzen gara. Sai talde bat ikustean bertara joaten gara, azkarrago igotzeko.

### Asko ibiltzen zara parapentean?

Ahal dudan guztietan aireratzen naiz.

**"ZORTZI URTE DIRA PARAPENTEAN HASI NINTZELA ETA GEROZTIK, BETI ZERURA BEGIRA NAGO"**



# Andramari jaietan ekitaldirik ez

Abuztuaren 15ean, Erandioko bandak eskaini behar zuen kontzertua bertan behera lagatzea erabaki du Udalak.

Udalak azken orduotan ohar bidez jakinarazi duenez, Andramari egunean Erandioko bandak plazan eskaini behar zuen kontzertua bertan behera laga dute. Oharrean zehaztu dutenez, kontzertua suspenditzea erabaki dute "Jaurlaritzak preparatzen diharduen dekretu berriaren neurriekin ez delako posible ikusten berau egitea". Ondorioz, aurtengo abuztuan, ez da Udalak antolatutako ekitaldirik izango.



Erandioko banda. ARTXIBOKO IRUDIA.

**Auzoetako jaiak bertan behera**  
Aurretik Ezozik eta San Andresek egin zuten moduan, Irureko eta San Martzialgo jai batzordeek jakinarazi dute, Covid 19a dela eta, uztailean eta irailean egitekoak ziren jaiak bertan behera laga dituztela.

**Irailean bigarren Kulturaldia**  
Bestalde, Udalak irailean eta udazkenean kultur programazio berezia antolatzeko asmotan dihardu. Besteak beste ondorengo ekiemanak antolatuko ditu: helduentzako bertso tailerra, *Ez da kasualitatea bertso emanaldi musikatua, rondaila baten emanaldia, antzerkia, zinea, blues jaialdia eta beste zenbait ekitaldi*. Hori bai, institutua berritzeko lanak direla eta, Frontoi Zaharrean ezingo da emanaldirik antolatu.



Etxian be edarki egoten da baina...

## Udako argazki lehiaketa



**Argazkiak bidaltzeko epea:** Irailak 11

**Helbidea:** [ubane@pilpilean.eus](mailto:ubane@pilpilean.eus) · 699 868 729






**Sariak**

**1. saria:** Jatordua Txurruka  
Jatetxean 2 pertsonarendako

**2. saria:** Egotzako gazta

Parte hartzaile guztiek Pil-pileanen autoko pegatina jasoko dute opari

**Informazio gehiago: [Plaentxia.eus](http://Plaentxia.eus)-en**




*Jatearen plazerna, bertatik bertara*



**Batzoki**

inguruko menua  
aurrezartutako  
karta eta menuak

opiatuek eta  
hamburgeren  
enkango bereziak

Basila eta  
lugar arrak  
bestakak

Erretelak 943 75 20 10

**Hortz klinika**

Errabal 1  
Tel.: 943 75 16 13

**Javier Alonso**  
Mediku Estomatologoa  
K.Z. 48.000.500

**Katia Gustin**  
Odontologoa  
K.Z. 48.001.541

**27 urteko esperientzia**  
odontologia, grotetikak,  
odontopediatria, ortodontia,  
implanteak, estetika...

Zerbitzu radiologiko orokorra (XCO)  
enkanera, orto eta tele.



**ELIZPE HORTZ KLINIKA**

Zure genako hortz klinika,  
puntu puntako teknologietan lan  
egiten dugu. Cad Cam sistema  
bertzizko erabilpen dugu.



Elizburu, 3 behea  
SORALUZE  
Tel: 943 75 25 67  
e-mail: elizpe1@gmail.com

Ordutegia:  
Astelehenerdik ostiralera  
10:00 - 13:00 eta 16:00 - 20:00

**KLB6**

Kalebarren 6  
943 67 21 26

Muller eta medien  
modulagailua



BSB *Papa Joana*  
VERO MODA

ISOLID  
BONICHE

new balance

**Armendi Jatetxea**

Sukalde  
tradizionala

Eguneko menua  
Asteburuetan  
menu berezia

Karta

Burduntzian  
erretako bildotsa  
Etseko Irtoak  
Souflaa



Tel.: 943 75 10 02

**IZXGUIRRE**  
Igeltzeritza



Eraikin berriak • Kalitatezko emaitza  
Erreforma • Era gutxiatoko igeltzeritza

50 urteko esperientzia • 610 638 913 - 649 867 299

**Kontulan**

aholkularitza  
ABOKATUA K

Errenta, altopenak • Administrazioa lanak  
Trafiko burokratia • Lan-erlako aholkularitza  
Enpresen kontuzio/indulgentziak • Kontabilitatea

Santa Ana 13 - 1. eta. 20590 Sorluze  
Tel: 943 75 17 82 / Fax: 943 75 01 82

**MENDIZABAL**  
okindegia

Ogla • Prentsa • Gosariak

Astelehenerdik  
ostiralera:  
08:00 - 13:00  
17:00 - 20:00

Larunbatak eta  
igandeak  
08:30 - 13:15

Kalebarren 10  
Tel.: 943 75 13 99



**Txoko**

Eguneko menua,  
plater konbinatuak,  
hamburgerak,  
egitarlekoak,  
radiak,  
pizzaak,  
gosiak...

Enkarguak agian dira  
Tel. 943 75 17 89



**GOKI**  
erreformak



**FATXADA BIRGAITZEAK**

S.A.T.E.  
FATXADA AIREZTATUAK  
BIRGAITZE TRADIZONALA  
BALKOEN BIRGAITZEA



**ESTALKI ETA TEILATUAK**

ERABATEKO BIRGAITZEAK  
TERRAZA ETA ESTALKI LAGIAK  
MAINTENTZE LANAK  
SEGURTASUN SOKA FINKOAK



**BARNE ERREFORMAK**

ETXEBIZITZAK  
LOKAL KOMERTZIALAK  
BULEGO ETA ENPRESAK  
SUKALDE ETA BAINUGELAK



**IRISGARRITASUNA**

OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEA  
IGOGAILU INSTALAZIOAK  
0 KOTA



**BULEGO TEKNIKOA**

ERAIKINEN IKUSKARITZA TEKNIKOA  
EFIZIENTZIA ENERGETIKOKO ZURTAGIRIAK  
ERAIKUNTZA PROIEKTUAK

**ELGOIBAR**  
943 74 42 23

**SORALUZE**  
943 12 57 41

**BERGARA**  
943 76 53 42

# Euskal enbaxadore Uruguain

MAIALEN ELIZBURU SORALUZETIK MONTEVIDEORA



Otsailaz geroztik, Maialen Elizburu (Sorluze, 1980) euskarazko irakurle da Montevideoko Udeler unibertsitatean.

## **Nolatan Montevideon irakurle?**

Etxepare institutuaren lan eskaintza irakurri nuen eta aukera ederra iruditu zitzaidan. Aurkeztu egin nintzen eta aukeratu egin ninduten.

## **Irakurlearen lana zein da zehazki?**

Euskararen eta euskal kulturaren enbaxadore lanak egitea dagokit. Alde batetik, unibertsitatean eskolak ematea eta bestetik, hemengo diasporarekin harremanak eta elkarlana bideratzea.

## **Euskal kulturaren gaineko zein gai azaltzen dituzu?**

Irakasgai batean oinarritzko hizkuntza lantzen da eta beste batean euskal kultura. Nire asmoa da euskal kulturaren ikuspegi orokor bat ematea: Euskal Herriaren kokapen

geografiko eta administratiboa, hizkuntzaren historia eta biziberritze prozesua, mitologia, turismo eskaintza, ahozko euskal tradizioa, euskal literatura, musika, zinema...

## **Izan duzu aukerarik Uruguain zehar bidaiatzeko?**

Ahizparekin batera joan nintzen ekialdeko kostaldera, Punta del Estera. Jendea oso atsegina da, beti laguntzeko prest daude eta denbora hartzen dute. Egia esateko oso eskertua nago, beso eta bihotz zabalik hartu nautelako. Han baino presa gutxiago dago hemen, beste bizi erritmo bat dago, beste lasaitasun bat, hemen 'relajo' deitzen diotena.

## **Noiz arte geldituko zara?**

Printzipioz abendura arte geldituko naiz. Herritik eta maite ditudanengandik urrun egoteak laguntzen du etxekoa beste modu baten baloratzen.

1. Punta del Diablon, egonaldirako etxetxoan.
2. Montevideoko Zabala plazan, matea hartzen.
3. Ainhitze ahizparekin Punta del Diablon. Atzean, *El Vasco* izeneko supermerkatua.
4. Culturfest jaialdia unibertsitateko areto batean.

# Futbol zelaiko zaindaria

'FALI' TAJUELOK MANTENU-LANAK EGITEN ETA TABERNA KUDEATZEN DIHARDU

**UBANE MADERA**

ARGAZKIAK: FERNAN OREGI

“Futbol-zelaia sekula ez da horren ondo zainduta egon”. Azken boladan, herrian sarri antzean entzuten den esaldia da hori. Futbol-zelaiaren "zaintzailearen" berri jakin nahi duenak, bertara igo eta edozeinek aurki dezake hantxe Fali (Rafa Tajuelo, Altsasu, 1970), egunero-egunero.

Tajuelok bi urte daramatza futbol-zelaiko mantenu-lanak egiten. Sorako zuzendaritzan parte hartzen hasi zen eta futbol zelaiko mantenuaz arduratzen bukatu zuen. Instalazioak zaindu eta apurtzen den guztia konpontzen ahalegintzen dela dio. “Egunero begiratu behar da zerbait falta den. Nik zaindu egiten dut, ahal dena nik neuk konpontzen dut, ezin badut, abisua ematen dut”.

Hori guztia doan egiten du, gainera, GOLen duen lanpostuko orduetatik aparte; berak, ordea, gustura asko egiten du. "Askok konpentsatzen dit, herriarendako delako. Denok egingo bagenu halako zerbait, guztia hobeto egongo litzateke", dio altsasuarrek duda izpirik gabe.

## Garbiketak eta taberna

Doako lanez gain, Tajuelok ordainpekoak ere egiten ditu futbol zelaian.

Batetik, entrenamenduen eta partiduen ondoren, aldagelak garbitzen ditu.



Rafa Tajuelo futbol tabernako sarrerako mahaian.

Bestetik, futbol-zelaiko taberna alokatu zion Sorari orain dela lau urte. Denbora gehien egin duena da bera: "Inork ez zuen etorri nahi. Tabernan gehien iraun duenak hiru urte egin ditu. Askok urtebetea egin eta joan egin dira. Niri, berriz, jendeak esaten dit gustura dagoela, fitxajerik onena naizela (barre)".

COVID-19a dela eta, azken asteetan taberna itxi behar izan duten arren, -bertan lanean egon zen gazte batek positibo eman zuelako- azken

## FUTBOL-ZELAIKO MANTENU-LANAK DOAN EGITEN DITU 'FALI' TAJUELOK, HERRIARENGATIK

hilabeteotan bultzada nabarmena eman diote bai tabernari zein taberna inguruari. Izan duten bezero igoera ikusi besterik ez dago.

## Egun eta ordu gehiago zabalik

Falik kontatu du neguan hasi zela taberna indartzen:

"Hasieran, zapatueta eta domeketan zabaltzen genuen, partida zegoenean bakarrik.

Bigarren urtean, berriz, astelehen arratsaldeetan ere zabaltzen hasi nintzen, Futbol Eskolakoengatik. Hori oso ondo hartu zuten, orain zabaltzen ez dudanean bronka (barre).

Asteburueta, 08:00etan hasten gara lanean. Partidua 10:00ak baino lehen bada, berriz, 07:30erako. Izan ere, jendeak asko estimatzen ditu tortilla eta txorizo egin berriak, salda... Kalitatezko generoa ematen ahalegintzen gara".



'Fali' marrak margotzen.

Konfinamenduaren amaieratik, beste ahalegin bat egin, eta taberna arratsaldero zabaltzen dihardu. Oraingo itxiera bukatzen denean ere, hala segituko dute. Gero ohikora bueltatuko da: "Denboraldia hastean astelehen arratsaldeetan zabalduko dugu eta asteburuetan partidak daudenean. Neguan hotz handia pasatzen da, ez dago argindar potentziarik berogailurako..." Kontuak kontu, Tajuelok eta familiak futbol-zelaian segituko dute, orain arte moduan zaintzen, "joateko esan arte edo aspertu arte".

**"JOATEKO ESAN ARTE  
EDO ASPERTU ARTE  
HEMEN SEGITUKO DUT,  
BESTE URTEBETEZ  
GUTXIENEZ"**

## "Uste dut jendeak ondo hartu gaituela"

**RAFA TAJUELO** EZOZIKO FUTBOL-ZELAIKO ETA TABERNAKO LANGILEA

Joan den astetik Ezoziko Futbol Zelaiko taberna itxita dago. Falik zein Begok 9 egun daramatzate PCR probak egiteko zain, atzo, martitzena eman zieten hitzordua. Disgustu ederra dute egoerarekin. Disgustua, ezta? Handia, askok egurra eman didate. Lanean egon zen gazteari esan zioten positibo bazen abisatu egingo ziotela.



Ez zioten berehala abisatu eta negatibo zelakoan lanera etorri zen; gero jakin zuen positibo zela. Taberna itxi ziguten eta gaur (martitzena) egingo dizkigute probak, berrogeialdia bukatuta. Gertakari hori aparte lagata, Ezoziko Futbol Zelaiko taberna modan dagoela esango nuke...

Bai, uste dut jendeak ondo hartu gaituela. Hori bai, tabernan lan egitea ez da bakarrik pertsiana zabaltzea, lan handia egin behar da. Hainbat hilabetetan parra egin dugu alokairuarekin. Hilabete okerretan Sorak lagundu egin digu, alokairua jaitsita; Orain, berriz, hilabete onak izan direnez, gu izango gara Sorarekin solidarioak. Ez digute ezer eskatu, baina Sorako zuzendaritzak ere ez du dirurik...

Tabernari berari buelta ederra eman diozue.

Baietz esango nuke. Sartu ginenean balda bakarra zegoen, kafeterarik ez zegoen, itoginak zeuden... Hori guztia guk ipini edo konpondu dugu, lagunartean. Adibidez, teilatua inpermeabilizatzeko materiala Udalak eman zigun, baina eskulana guk egin dugu, doan. Bestalde, kafetera guk ekarri genuen; ia ez zegoen baxerarik eta hori ere guk ekarri dugu; tabernako terrazarako egurrezko jarleku-mahaia ere geuk egin ditugu... Hori bai, esan nahiko nuke sukaldeak berrikuntza behar duela.

Lorategia ere itxuratu duzue.

Bai, hasieran loreak erosi eta loreontziak ipini genituen eta apurka-apurka guztia dekoratzen joan gara, loreekin, futboleko eta errugbiko kamisetekin...

# ZERBITZUAK

## ZORION AGURRAK



**Irea Andres eta Visi Curiel**  
Uztailaren 2an eta 25ean. Zorionak!!! Muxu eta besarkada bana etxekoan partez.



**Markel eta Izaro Rodríguez Aparicio**  
Uztailaren 23 eta 30ean, 9 eta 5 urte. Zorionak Izaro eta Markel. Muxu handi partez.



**Maddi Alberdi**  
Uztailaren 16an, 11 urte. Zorionak sorgiñori. Irrifar polit horrekin bizitza alaitzen diguzu. patxo pilo bat



**Lide Sodupe**  
Uztailaren 1ean, 10 urte. Zorionak, Lide! Segi horrelako alai eta jator. Patxo handi bat etxeko danen partez.



**Consuelo eta Manolo**  
Ekainak 28. Urrezko urteurrena! Zorionak bikote! Gugatik egin eta egiten duzuen guztia eskertzen dizuegu. Muxu handi bat familia osuaren partez.



**Unax eta Aimar Igartua**  
Zorionak, bikote, jada 8 urte uztailaren 5ean. Patxo handi bat etxekoan partez.



**Laida Sanchez**  
Uztailaren 21ean, 9 urte. Zorionak etxekoan partez.



**Elena Vega eta Luis Fernando Torrano**  
Zorionak bikote! Urte askotarako! Datozten urtiak ointxeartekuek bezain zorionsuak izan deixela. Besarkada eta patxo mordo bat. Aristi Maiztegui familian partez.




**Irati eta Maren**  
Uztailak 23an eta abuztuaren 14an, 9 urte. Zorionak bixori! Etxekuen partez.



**Itziar Agirre**  
Abuztuaren 15ean, 47 urte. Zorionak!



**Mikele**  
Abuztuaren 1ean, 5 urte. Zorionak familiaren partez!



**Ander Gallardo eta Leire Ariznabarreta**  
Abuztuaren 3an, 9 urte eta abuztuaren 9an, 39 urte. Zorionak! Segi beti bezain alai.

**MABEL**  
ILBEPAINDEGIA

Ilbepaindegiaren zerbitzuak:  
 - Ilbepaindegiaren zerbitzuak  
 - Depilazioa  
 - Ilbepaindegiaren zerbitzuak gabeko permanentsia  
 - Makilajua  
 - Manikura  
 - Erilaurunkaria  
 - Solariuma

Errabal 1  
Tel.: 943 75 14 89

**MGS**  
Seguros

Santa Ana 13 - Tel. 943 75 14 57

Astelehenerdik ostiralera: 09:30 - 12:00 eta 15:30 - 20:00  
Larunbetatik: 09:30 - 13:00

**Almar**  
ILBEPAINDEGIA

Ilbepaindegiaren Zerbitzuak  
Estetika  
Solariuma

Gaboteg 4, Artea  
Tel.: 943 75 15 11 - 082 51 34 04

Euskalzaletasunaren alde:



**aras**



**laibi**  
ELECTRICIDAD

ESKELAK

ESKELA

## Mikel Iñurrieta Arana

2020ko uztailaren 5ean hil zen, 63 urte zituela

Nork sartuko ditu orain garaipeneko golak  
Noren zain egongo gara txango egunetan  
Zeinek aberastuko du gure adarjotze unibertsoa  
Joan berria zara eta dagoeneko faltan botatzen zaitugu  
Zure oroimen eta irribarrea geratuko da gurekin  
Betira arte FIF!

BANDERA TRAPO




ESKELA

## Mikel Iñurrieta Arana

2020ko uztailaren 5ean hil zen, 63 urte zituela

Hutsune izugarria eta falta haundixa laga dozu, baina aurrera  
begiratuko dogu zurekin eta zuregaitik, maitte zaittugulako!

Sendia



I. URTEURRENA

## Mertxe Balzola Garai

2019ko abuztuaren 1ean hil zen, 76 urte zituela

Beti izango zaitugu gogoan.

Etxekoak



HILDAKOAK

- Hildakoak**  
 Rosa Suarez Vallejo  
 Felipe Rascon Gomez  
 Mikel Iñurrieta Arana  
 Rafaela Urionabarretxea Basurko  
 Basilisa Larrañaga Urresti



**Etxabe  
Harategia**

- Etxara eramaten da
- Enkarguak hartzen dira
- Sorakuzeko baseenetikako produktuek
- Etxeko irigaki eta txakorrak

Etxaburua 5  
Telefonoa: 943 75 23 75



**JUAN MARI  
ARRAINDEGIA**

MORRATZ PLAZA - 943 75 24 48

Araba Iratzea  
Elvira Aramotxo zerbitzua  
Enkarguak hartzen ditugu



**FOGASLER  
ITURGINTZA**

943 75 16 46 (Sorakuzer) - 943 71 82 49 (Olatu)  
fogasleriturgintza@gmail.com

# ARIGUNEA

LANEAN, KIROLEAN, TALDEAN...  
EUSKARAZ DENEAN!

**ORAIN, ENTITATEEN TXANDA.  
SORTU ARIGUNEA ETA EMAN IZENA!**

*IZENA EMATEKO EPEA: IRAILAREN 27A.*

*GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN*

**AZAROAREN 20TIK  
ABENDUAREN 4RA**



[www.euskaraldia.eus](http://www.euskaraldia.eus)



@euskaraldia



@euskaraldia



@euskaraldia

